

118. zk.
2002ko urria



Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

Franko itundua 48/27



Bendimia Arabako Errioxan

Landare mehatxatuak
Arabako euskara elkarteak
Trafikoa Gasteizen
Arku jaurtiketa
Iratxe Gonzalez irudigilea
Mikel Telleria kantaria

ARABAKO EUSKAL HOTSAK

ANTECEDENTES DEL EUSKERA EN ALAVA

LIBURUAK SALGAI!!!



- 2 liburu dira: bat EUSKARAZ, bestea GAZTELERAZ
- 256 orrialde
- Salneurria: 19, 8 € (liburudendan)
- PREZIO BEREZIA HARPIDEDUN eta BAZKIDEENTZAT (bulegora etorruta): 17, 5 €
- Honako liburudendetan salgai: Casa del Libro, Zuloa, Arriaga, Albeniz, Ayala eta Study (Gasteizen). Gasteiztik kanpo: liburudenda nagusienetan

Arabako euskal jatorriko toponimiak antzinako biztanleen iragan euskalduna erakusten digu. Baina, errealitate hau baieztatzen duten bestelako lekukotzak al daude? Gure arbasoek menderik mende gehien erabili ohi zuten hizkuntzaren aztarnarik utzi al dute? Erreferentzia zein idazkirik utzi al digute? Zer eman du Arabak euskararen historian? Zer euskara mota mintzo zen?...

...Zalantza hauek guztiak liburu honetan argitu ahal izango dituzue. Edukietan aberats eta bisula oso, dokumentu original ugari, argazkiak eta mapak dituela. Gure, zure, historiaren atal garrantzitsu hau ezagut dezazun, eta aldi berean, emandako datuen bitartez -Aktak, kontu-liburuak, noblezia espedienteak, testamentuak, ezkontzak, inkisizioaren epaiketak, arabarren euskarazko idatziak,...- egiaztatu Araban euskara erabilpen orokorreko hizkuntza izan dela, mende askotan zehar gehienena izaki, eta hainbat garai eta zonaldetan ezagutzen eta hitz egiten zen bakarra.



EZAGUTU ZURE HISTORIA!!

IRAGANAREN EZAGUTZAK ETORKIZUNAREN INDARTZEA DAKARRELAKO!

ARABAKO EUSKAL HOTSAK-ANTECEDENTES DEL EUSKERA EN ALAVA
ERAKUSKETA IBILTARIAK ERAKUSKETA IBILTARIA
udazkenari so eginez:

ARAIA: URRIAK 15-30

AMURRIO: AZAROAK 1-15

118. zk. 2002ko urria

4-6. ORR.:

HILEKO GAIA: ADIO JON GABELLA!

IKUSI-MAKUSI - ARABA BIXOTZIAN - NATURAREN ISLADAK

7-8. ORR.:

GEUgune

**EKIMEN BERRIAK MARTXAN: GAUEKOAK,
GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA**

9. ORR.:

**LITERATURA
MUSIKA**

10-13. ORR.:

ARABAKO ERRIOXA. BENDIMIA

14-16. ORR.:

LANDARE MEHATXATUEN INGURUKO LIBURUA
Pedro Uribe Etxebarria botanikoa eta Iñaki Zorrakin
ilustratzailearen eskutik

18.-20. ORR.:

ARABAKO EUSKARA ELKARTEAK

21-24. ORR.:

GASTEIZKO ERREPIDEETAN BARNA

25-27. ORR.:

ARKU JAURTIKETAra hurbilduz

28-29. ORR.:

IRATXE GONZALEZ IRUDIGILEA

30-31. ORR.:

MIKEL TELLERIAREN DISKO BERRIA:
"ZALDIK HARTUTA"

32-33. ORR.:

Zeuk aukeratu!

34. ORR.:

TINK (Iñigo Sarasolaren komikia)




GEU Elkartearen ekimenez egina
Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es

Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate. **Aldizkariko batzordea:** Josune Velez de Mendizabal, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez. **Kazetariak:** Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron. **Argazkiak:** Edorta Sanz. **Bestelako irudiak-bilaketa:** E.B. **Testuen orrazketa-zuzenketak:** E.B. **Maketa:** Dalvez. **Marrakziak eta logoa:** Iñigo Sarasola. **Araba Bixotzian:** Ernesto Murillo 'Simonides'. **Kolaboratzaileak:** Iñaki Zorrakin. **Publizitatea eta Banaketa:** Edurne Begiristain. **Sustapen-harpidetza saila:** E.B.Z., Edurne Begiristain.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) • Ale Kopurua: 2.500
LG: VI-582/92 -ISSN: 1133-0988 -

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu (Gasteiz) hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazikoaren erantzukizunik.




10-13. ORR.:



14-16. ORR.:



25-27. ORR.:




30-31. ORR.:



HILEKO GAIA

ADIO JON GABELLA!!!

*Gauak egunargiz harrapatu zintuen, gauak,
gurutzegramaren
azken laukian*



Hemendik gure bihozmina adierazi nahi dugu Jon Gabella aktorearen heriotzagatik, eta bai gure doluminak ere sendiari eta taldeko kideei, zeinek egoera gogorra oso bada ere Jon Gabellari egin dakioken omenaldirik berezi eta beroena egin nahi zioten, Antzerki Jaialdian

“Hablaresdebobos” euren azken obra dedikatuz.*

*(*Arrazoi profesionalak direla medio bertan behera geratu da)*

Orri honek Jon, sendia eta taldeari gure omenaldirik beroena egiteko balio dezala!

**Era berean AGUR esaten diogu
La Polla taldeko bateriaiole FERNANDO MURUARI ere**

PITORIA - GASTEIZ




SIMONIDES

adaka 
madinabeitia

**Floridako
altxorra !**

35




EUSKARAREN BILAKAERAREN AURKAKO ERABAKIA

Irailaren 22an Bergondan izandako “Euskara Añana Mingainean”, euskara zonaldean bultzatzea helburu duen eguna diruz ez laguntzea erabaki du Arabako Foru Aldundiak. Emandako arrazoia: Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak eguneko egitarauan egotea, Foru Aldundiak “ez baitu inoiz diruz lagunduko arabarren zatiketa eragin dezakeen ekimenik”.

Oztopoak oztopo, orri hauetatik guztiok animatu nahi zaituztegu euskarak gure lurraldean merezi duen tokia izan dezan, euskararen aldeko ekimenetan esku hartu eta egunik egun tanta bat jartzera, bere garapena eta duintasunaren bidean lan eginez,!!

NATURAREN ISLADAK

Uztailetik irailerarte eulitxori beltzak (*Ficedula hypoleuca*) ugariak dira edonon. Iparraldetik Afrikarako bidean, gure mendi eta haranetan jateko geldialdia egiten dute.



GEU AZOKA

Hemendik aurrera iragarkiak aiez ale berritu behar dira. Eskerrik asko!

-SALMENTAK-ALOKAIRUAK:

- Garaje plaza bat salgai. San Cristobal auzoan. 945137195-606658122

- Kotxe bat salgai: Seat Ibiza, VI-L. Salneurria: 600.- euro. 615788283 (Karlos)

- Pisu bat salgai Antiguu auzoan, Donostian, hondartzatik gertu. 943799202 (arratsaldez)-652751947

- Apartamentua errentan gunenaturista batean: Vera-Almeria. Hondartza naturista. Hornitua: garbigailua, mikrouhin-labea, telebista, terraza eta igerilekua. 657739425

-UMEAK-ETXEKOLANAK-ESKOLA PARTIKULARRAK-LANA

- Pertsona bat behar da 8 urteko neskatoa zaintzeko. Ordutegia: goizeko 7.50etatik 9ak arte (eskolara eramanean); 12.00etan jaso, bazkaria eman eta 15.00etan eskolan utzi. 945170705 (Marian-Dario). Oharra: behintzat goizeko ordutegia betetzea.

- Pertsona bat behar dugu 7 hilabeteko neskatila bat zaintzeko. Arratsaldeetan 3 ordutegia (asteleheneetik ostiralera). Tfnoa.: 945256662 (Igone)

KANGEUROAK

Umeak zaintzeko Kangeuroen zerrenda osatzen ari gara. Zerrenda honetan agertu nahiez gero deitu 945 22 21 53 telefono zenbakira -edo e-mailez- eta eman zure izena eta telefonoa eta zehaztu zure ordutegia (egun osoz, goizez, arratsaldez, gaeuz, asteburuak). Horrela norbaitek KanGeuro baten beharra balu... hemen leukake aukera zurekin zuzenean kontaktuan jartzeko!!

LAGUN HAUEK UMEAK ZAINTEZKO PREST DAUDE

* ESTITXU. Ordutegi guztiak, 651 70 67 39

GAUEKOAK. GEU ELKARTEAREN EKIMENEZ:**‘EUSKARAZ BUSTIZ’ ASTEBURUA**

Aldabe Antzerkia (Aldabe G.E.)

AZAROAK 1, OSTIRALA

- Ipuin Kontalaria: Koldo Amestoy. 22.30etan.
- Kontzertua-Mikel Telleria: "Zaldiak Hartuta" disko berriaren aurkezpena. 23.45etan.
- Bertsolaritza: Karidadeko Benta Ion Maiarekin. 1.00ean.

AZAROAK 2, LARUNBATA

- ARDOAZ Ander Lipusen bakarriketa, Antzerkiola Imaginarioren eskutik. 22.30etan
- Kontzertua: Labrit. 23.30etan
- Patxo Telleria eta Mikel Martinez Antzerki Taldea (Maskaradako kideak): "Euskera Senzilloaren Manifestua". 0.30etan.

ETA GAINERA

Txalaparta. Taloa, Txorizoa eta sagardoa (euro bat) Sarrera dohainik, antzokia bete arte

ETA ADI GAUEKOAK-EN BESTELAKO ESKEINTZEI!

**EUSKARAZ BUSTIZ**

ALDABE ANTZOKIA (ALDABEKO G.E.)

AZAROAK 1, OSTIRALA

- * Ipuin Kontalaria: Koldo Amestoy. 22.30ean.
- * Kontzertua: Mikel Telleria: "Zaldiak Hartuta" disko berriaren aurkezpena.
- * Bertsolaritza: Karidadeko Benta, Ion Maiarekin. 1.00etan.

AZAROAK 2, LARUNBATA

* ARDOAZ, Ander Lipusen bakarriketa, Antzerkiola Imaginarioren eskutik.

GEUREKIN MENDIRA ZATOZ GEUREKIN MENDIRA!**URRIKO IRTEERA:****SARTZELETA (LIZARRA)****URRIAREN 20an**

Irteera: Marianistasen (Luis Heinz kalea), goizeko 9.00etan. Kotxea baldin baduzu, eramanean

Informazioa: 945200973



ARMAZOIRIK
GABEKO
BETAURREKOAK

49

€ TIK HASITA

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza • Olagibel, 33
Vitoria-Gasteiz



www.multiopticas.com
Informa zaitez gure
Kreditu Txartelen abantailez

Adi!! GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA

Benetako literaturak ez du ezertarako balio: ez gaitu bihurtzen aberatsago, ez altuago, ez ilehoriago, ez ederrago; ez da guztiz ziurra ere hobeak edo jakintsuagoak bihurtzen ote gaituen. Egiatan, ziurtasun osoz esan daitekeen gauza bakarra da plazerra lortzeko eta gehiago bizitzeko balio duela literaturak, izan ere garenak izatearen asperra arindu egiten baitugu, aukera emanaz beste norbaitzuk izateko, sekulan bizi ezingo duguna bizitzeko, eta pentsa zitekeenik susmatu ere egiten ez genuena pentsatzeko.

Javier Cercas.

Ezinezkoa da berriro igotzea bizitzara, dilijentzia-bidaia errepikaezin horretara, behin amaierara helduta alegia; baina eskuetan liburu bat edukiz gero, korapilatsua eta ulertzeko zaila izanik ere, irakurtzen amaitzean, nahi izanez gero, hasierara itzul gaitezke, berriro irakurri eta, horrela, zaila dena ulertu, eta, aldi berean, baita bizitza bera ere ulertu.

Orhan Pamuk.

GEU ELKARTEAREN EKIMENEZ ETA, INFORMAZIOA EMANEZ, GEU ALDIZKARIAREN LAGUNTZAZ

Literaturazale gehienok badugu premia bat: irakurtzen dugunaz hitz egin, eztabaidatu nahi izaten dugu; irakurketaren bizioari atxikitutako beste bizio bat, zalantzarik gabe. Bizio eratorri hori, tamalez, nekez praktikatu daiteke bakarka (lehenengoa ez bezala), eta askotan faltan sumatzen ditugu horretarako espazio eta une aproposak.

Gasteizko Irakurle Klubak helburu xume hori dauka: euskaraz irakurtzen gozatzen dugunon topalekuetako bat bihurtzea, gune berri bat zabaltzea. Ikasturtean zehar, hilabete bakoitzeko **azkeneko asteazkenean**, arratseko **20.00etan**, liburu bati buruz berba egiteko elkartuko gara **hikateneo**-an (Pintore kalea, 1, alde zaharrean); Iban Zaldia izango da saioen koordinatzailea. Ez da inolako prestakuntza berezirik beharko: literaturazale izatearekin, liburuaz hitz egiteko gogoia edukitzearekin, eta hilabete horretan agindutako liburuak irakurrita ekartzearekin, nahikoa eta sobera izango da. Mota guztietako liburuak izango ditugu hizpide, eta, batzuetan, ahal izanez gero, liburuaren egilea bera izango dugu gure artean, eztabaidan parte hartzeko.

Egitasmo hori aurrera eramateko, jakina, zure laguntza eta eskuhartzea behar ditugu. **Proiektuaren aurkezpen-bilerak** batera deitzen zaitugu, beraz, **urriaren 9an (asteazkena)**, hikateneo-an bertan, **21.00ak** aldera.

Baina horren aurretik, eta Klubaren aurkezpen gisa-edo, **20.00etan**, leku berean, **Hasier Etxeberria** idazleak **"Idazlea kazetari bihurtzen denean (Idazlea kazetari larraz)" hitzaldia** eskainiko digu ("Bost idazle Hasier Etxeberriarekin hizketan" bere azken liburuaren kariatarat); amaitu ondoren, interesa daukagunok elkartu eta proiektuaren xehetasun eta gora-beherez hitz egingo dugu.

Urrian irakurtzeko hautatu liburuak:

"Hirira doan bidea"

Egilea: Natalia Ginzburg / Itzultzailea: Pello Lizarralde
(Igela argitaletxea)

Eta liburu honetaz mintzatzeko: Urriaren 30ean (20.00etan, hikateneon)

HEGOALDE
Euskaltegia



Matrikula zaitetz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ


ARTEPAN



Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta
kotoizko ehunak
eskuz margotuak"

- ZAPIAK -

Arantza Arregui
Ramiro Maeztu, 1 · Tfnoa.: 945 13 33 59



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25

Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 · Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza · GASTEIZ

ELKARLANEAN ARGITALETXEAREN ESKUTIK




Ana Urkiza

Bazterreko ahotsa

Poesia 3 (irailean klean)

Emakumetasunaren inguruko gogoeta bat dauka barnean poesia-bilduma hunkigarri eta kontzesiorik gabeko honek. Alderdi kolektibo batetik begiratuta, generoak markaturiko bazterketak, diskriminazioak, lan-pilaketak modu gordinean agertu eta salatzen dira; baina badago alderdi pertsonal bat ere, injustizia globalak norbere larruan gauzatzen direlako gero, eta batek maiteen dituen horiek bihurtzen direlako, askotan, norberaren bazterketaren agente edo konplize. Bere biluzian mamira jotzen duen hizkera eder batekin, poema eder bezain zirraragarriak idaztea lortu du Ana Urkizak, eta irakurlea aztoratzea ere lortuko duela esango genuke, emakume nahiz gizonezko izan.



-gailu
kutxa beltza
pil-pil sessions 01
Metak



KUTXA BELTZA 1997an Bilbo hirian ezarritako behaleku baten kariaz sortu zen. Kamera sare bat ezarri zen, hirian harturiko irudiak konputagailu batek interpreta zitzen trafikoa kudeatzeko. Espazio publikoak irudi publikoari uzten dio bere lekua eta pertzepzio errealitatea argi-ilun izatetik abiadura izatera pasatzen da. Audio, Mikel Abregok koordinatua, soinuaren errejistroan eta musika programazioan oinarritzen da. Ikusentzunezkoa, Luis Andrék koordinatua, irudien errejistro eta ulermenerako ezarritako sistema berrietan esku sartzean oinarritua. Ahotsetan: Eneko Abrego, Anari Alberdi, Trío Kempes, Fernando Sapo eta Zalao Urain. Kalitatea hasieratik

LEHIAKETA:

Ze proiektu berri jarriko da abian urritik aurrera
Geu elkartearen ekimenez eta Geu aldizkariaren
laguntzaz, literaturarekin zerikusi zuzena duena?
Zein egunetan hasiko da?

Bidali erantzuna postaz edo e-postaz eta zorte on!
Geu aldizkaria. Pedro Asua, 2-3.a
01008-Gasteiz - geugaste@grn.es



ERROTA
HORTZ KLINIKA


Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

ARABAKO MAHATSAK A

Datozen asteetan lan dezente izango dute Arabako Errioxako ardogileek, aurtengo uzta biltzen hasiko baitira. Mahats-mulkoz beteko dira Eskuernaga, Bastida, Biasteri, Samaniego eta beste hainbat herritako upelategiak. Lerro hauek Kantauriko mendizerraren bestaldean dauden ardogileei zuzendu nahi dizkiegu. Haientzat, bada, gure omenaldi berezia.

Edurne Begiristain

Arg.: Edorta Sanz



RUIZ DE OÑA

- SORTZE DATA: Data zehatzik ez digute jakinarazi, baina tradizio handiko upelategia dela dioskute.
- HEKTAREA KOPURUA: 8
- ARDO MOTA: Beltza gaztea eta krintza (ondua), eta zuria (barriketan hartzitutakoa).



RDO BILAKATZEKO PREST

Mahats bilketari ekingo diote laster Arabako Errioxan. Ardogleak, beraz, kontuak egiten hasiak dira, Errioxako ardoaren jatorri izenaren egoeran aurtengo uztak izango duen eraginari buruz. Aurreko urteetan areagotu den egongaiztasunak, salmentan zein produkzioan, areagotzen du mahastietako jabeen kezka eta ardura. Lerro hauek idazteko garaian mahastigileek aurreikuspenak egitea zaila zuten, eguraldiaren gora-beheren zain baitzeuden oraindik, baina itxura guztien arabera badirudi aurtengoa kopuru aldetik iazkoa baino askoz urriagoa izango dela, nahiz eta kalitate aldetik ona izango den. Hala adierazi dio GEU aldizkariari Bastidako Zaldibar upelategiko jabeak: "Iazko uzta oso ona izan zen, baina aurtengoa ez dakit..., udan euri asko egin du, oro har hezetasun handia egon da, eta ondorioz, mahatsa ez da behar bezain ongi heldu".

Lorenzo Gorroño, Eskuernagako Besa ardoen jabeetako batek ere iritzi bera dauka. Aurtengo uzta eskasa izango dela diosku, eguraldiak erruz eragin baitio mahatsari, batik bat apirila aldean egondako izozteek eta udan izandako eguraldi kaxkarrak. Gainera, izotza bota zuenean mahats aleak puzten ari ziren, eta ondorioz, uzta hau kopuruz dezente eskasagoa izango da.

Ardoaren estetika...

Mahats bilketa bukatu eta ardoaren gazi-gozotasunak gure ezpainak bustitzen dituen arteko tartea prozesu luze, konplexu eta interesgarria da. Ia ardandegi guztiek ardoa ekoizteko oso prozedura bertsua erabiltzen dute. Mahatsa bildu, traktoreetan sartu eta upelategira eramaten da. Traktoreen metalezko ahoek 'tempranillo' moetakoko mahats zama handia eramaten dute (Arabako Errioxan ardo beltza egiteko gehien erabiltzen dena). Hustuketa baino lehen, mahats piloa pisatu eta alkohol gradua neurtu egin behar da. Pisatutakoan, hustuketa dator. Horretarako astindu ederrak ematen zaizkio mahatsari, atoian alerik gera ez dadin.



Argazkia: Joseba Olalde



BESA

- SORTZE DATA: 1975az geroztik ardoa saltzen dute.
- HEKTAREA KOPURUA: 8,5
- ARDO MOTA: Urtekoa (bi motatakoea) eta zuria.





Zulora erori eta berehala mahatsa txikitzen hasten da. Garai batean bi pare oin zailduak egin ohi zuten lana orain makinek egiten dute ia leku gehienetan. Mahatsa txikitu eta zotzak bereizten dira, ondoren.

Hartzidura hasten da orduan. Hartzidurari 25 eta 28 gradu bitartean eutsi behar zaio; horretarako, goitik behera dutxatzen dute ontzizar bakoitza, ur hotzez. Hortik aurrera, lau hilabete inguru iraungo du ardoak lozorro gozoan, ondu arte. Iluntasuna behar-beharrezkoa da horretarako.

Arestian esan bezala, Errioxako aparteko ardoa dastatzeko erabiltzen den mahats gehiena 'tempranillo' izenekoa da. Baina ez da bakarra: 'garnatxa', 'grazianoa' eta 'mazueldo' ere erabiltzen baitira, baina askosaz neurri txikiagoan. Mahats zuriari dagokionez, 'viura' da erabiliena, eta Jatorrizko Izendapenean mota honetako mahatsaren % 15 onartzen da.

... eta eraikinen estetika

Estetika jaun eta jabe dugu azkeneko urteotan. Itxura edukiari gailentzen omen zaio, eta Arabako Errioxan ere, ikusiak ikusita, ardandegi handiek egungo estetikari orpoz orpo jarraitu nahi diote. Gehry eta Calatrava arkitektu entzutetsuek, esaterako, Kantauriko mendizerra eta Ebro ibaiaren artean dauden zenbait ardandegi mende amaierako glamourrez jantzi dituzte jadanik. Irailaren amaieran eta hil honen hasierako asteetan asko dira, urrutitik ere, Arabako Errioxara doazen bisitariak. Arabako Errioxako ardandegiak lehian arituko dira laster Guggenheim eta gainerako museo jendetsuenekin. Helburu horrexekin, hain zuzen, ehunka



ARABARTE

- SORTZE DATA: 1989. Orduz geroztik upelategia berritzen eta garatzen joan dira.
- HEKTAREA KOPURUA: 40
- ARDO MOTA: Beltza, zuria eta gorria.





milioi inbertitzen ari dira, azpiegiturak sendotu eta ardandegien itxura inbidiagarri bilakatzeko asmotan.

Aldi baterako langileak

Aldi baterako, sasoikako langileak edo 'tenporeroak' Arabako Errioxako mahats-bilketarako oinarritzko zutabea dira. Garai batean, duela hamar bat urte, tenporeroak mahats bilketarako baino ez ziren etortzen; ijitoak ziren gehienak eta haiek eramaten zuten uztaren kontrola. Egun portugaldarrak dira nagusi eta mahastietan lan egiteaz gainera, urte osoan geratzen dira hemen, sagarra, laranja, patata eta abar biltzeko. Lorenzo Gorroñok azaltzen digunez, duela hamar urte aldi baterako langileen artean mafiak sortzen ziren. Ardogileak familiaren buruarekin hitz egiten zuen eta hark mahats bilketa guztia antolatzen zuen. Egungo egoera zertxobait aldatu bada ere, asko ez dela hobetu esan daiteke: "orain eguneko soldata 60 eurotan dago, eta horietatik 42 inguru 'mafiosoak' hartzen ditu eta gainontzekoa langileari ematen zaio", azaltzen du Gorroñok.

Negozio itzela da, beraz.

Haatik, egoera kaskar horri aurre egiteko zenbait neurri hartzen hasiak dira jada. Langilea bere jatorrizko herrian zuzenean kontratatzen da eta hona bakarrik dator (familiarik gabe). Sasoikako langile horri zehazten zaio epe zehatz batean zenbat egun egingo dituen lan, zenbat diru irabaziko duen eta biziko den lekua baldintza egokietan egongo dela. Oraindik behargin gutxirekin eraman da praktikara esperientzia hau, hogeit batekin, baina gero eta gehiagorengana heldzea espero da.

Esportazioak amildu

Azken hamarkadan Errioxako ardoak hazkunde ikusgarria izan du, bere salmentak hiru aldiz handiago bihurtuz kopuruari dagokionez, eta bost aldiz handiago balioari dagokionez. Baina bilakaera horrek erabateko etena izan zuen 1999. eta 2000. urteetan, eta beherakada handiak izan ditu merkatu guztietan, batez ere esportazioetan: % 30 kopuruan, eta % 12 fakturazioan. Horren arrazoia prezioen igoera izan zen. Hori ikusteko, nahikoa da Errioxako

ardoaren esportazioak azken hamarkadan izan duen bilakaeraren datuei begiratu bat ematea.

Egoera honek kezka larria sortu du sektorean, nahiz eta hazkunde garai luzearen tarteko bolada bateko krisialditzat hartzen den. Hori kontuan izanik, esparru horretan aurreikusten ziren inbertsioek aurrera egiten jarraitzen dute. Edozein modutara ere, krisialdi horrek mahatsaren eta ardoaren prezioarekin kontuz ibili beharra erakutsi die; izan ere, 1999. urtean 400 pezetatik gorakoa izan zen mahats kiloaren prezioa, eta beranduago ardoarena.

Azken hamarkada honetan Errioxako ardoak hedatze handia izan du maila guztietan. Horrela, Errioxako Jatorri izendapenaren Kontseilu Arautzaileak emandako datuen arabera: ekoizpenaren azalera 43.000 hektareetatik 52.000 hektareatarako igo da; errendimendua hektareako 37,4 hektolitrotatik 60 hektolitrotara; barneko salmentak, 77 milioi litrotatik 140 milioi litrotara, eta esportazioak 26 milioi litrotatik 70etara; eta azkenik, upelategiak, 100 izatetik 262 izatera iritsi da.



ESKUERNAK

- SORTZE DATA: **15 urte**
daramatzate lanean.

- HEKTAREA KOPURUA: **30**
ARDO MOTA: **urtekoa, eta**
kriantza (ondua) apur bat.



LANDARE MEHATXATUEN INGURUKO LIBURUA

Egileak: Arabako Natura Institutuko kide diren Pedro Uribe Etxebarria botanikoa eta Iñaki Zorrakin ilustratzailea

"Landare hauen ingurugiroa hiltzean datza arazoa"

Lanean buru-belarri harrapatu dugu Pedro Uribe Etxebarria botanikoa, mendira egindako azken txangoan hartutako landareak gordetzen eta sailkatzen. Bere lanari buruz berotasun handiz hitz egiten du Iñaki Zorrakin ilustratzailearekin batera Euskal Autonomia Erkidegoan desagertzeko arriskuan dauden landareei buruzko liburua prestatzen diharduen botanikoak.

Leire Lpz. de Aberasturi

Arg.: K.F.B.



Iñaki Zorrakin eta Pedro Uribe Etxebarria




Berotasun horrekin ere hitz egiten du Euskal Herriaren aberastasun botanikoaz. Nafarroan eta Araban are handiagoa den altxor horren arrazoa hemen eguraldi hezeak eta lehorrak bat egiten dutela dela azaldu eta gero, aberastasuna ez datorrela landare asko izatetik, landare mota ugari edukitzeagatik baino, zehaztu du. Espezieen aniztasun hori hegoaldera joaten garen heinean biderkatu egiten da, "eta Arabar Errioxan bakarrik Bizkaia eta Gipuzkoan dauden haina landare mota daude". Euskal Herriko kostaldean,

lautadetan eta mendietan dagoen aberastasun botanikoaren parte bat arriskuan dago gizakiaren eskua, industria eta modernitatearen erruz. Hori ekiditzeko neurriak hartzen hasi dira dagoeneko EAEko erakundeak, Jaurilaritza edo, horrela dagokienean, Foru Aldundiak. Babestu beharrekoak "EAEn desagertzeko arriskuan dauden landareen katalogoan" agertzen diren 130 espezie eta 6 populazio dira.

Liburua eta katalogoa

Katalogoa bera da Uribe Etxebarria eta Zorrakin prestatzen ari diren liburuaren abiapuntua. "Katalogoaren zabalpena egiteko modu bat da, egia esanda", azaldu du Uribe Etxebarriak. Liburuak landare guztien ezaugarriak eta egoera azalduko ditu, baina ez da zerrendatze hutsean geratuko, gauza asko baitaude esateko. Adibidez, "arazo larriena ez dela landareak desagertzen direla, baizik bizirauteko behar duten ingurugiroa desagertzea". Horixe jakitea garrantzitsua da, landareen bizirik irauteko bultzatu behar diren neurriek nondik hasi behar duten ulertzeko. Egun landare gehiago ez desagertzeko neurriak jarriko dira,



Arenaria vitoriana
Mehatxuen maila: Bakana

baina dagoeneko azken 100 urteetan 12 espezie hiltzen utzi ditugula salatu du Pedrok, Zadorra ibaian zegoen nenufar espezie bat esaterako: “Ignacio Aldecoa idazleak Zadorran bi igebelar mota zeudela esaten du bere ipuinetan eta egun bat baino ez dago. Bestea desagertu dela pentsatu behar da”.

Haritza eta arteak

Liburuak ustezko mito batzuk alboratzeko argudioak azaldu eta zenbait bitxikeria ikasteko ere balioko du. Aberastasunari buruz, esate baterako, “batzuek Euskal

Herriaren landareriak hitz egitean haritza aipatzen dute zuhaitzik adierazgarriena bezala, baina hori ez da horrela, haritza Bizkaia eta Gipuzkoaren botanikaren erakusgarria izan daiteke, baina Araban artea da ugariena, eta Euskal Herrian arte gehiago dago haritza baino”. Bitxikerien arloan, Asiatik Europara etenik gabe zabaltzen den pinu mota baten *-pinus halepensis-* azken muga Labrazan dagoela aipa daiteke. Horrek galderak pizten dituela aitortu du botanikoak, “zer du ba Labrazak hor amaitzeko, hortik aurrerako ingurua berdina izanik?”

Liburuak katalogoaren zabalpena egingo du

Pedro Uribe Etxebarria botanikoa eta Iñaki Zorrakin irudigilearen liburuak Euskal Autonomia Erkidegoaren Natura Zaintzeko Legetik sortutako katalogoan agertzen diren landareak ezagutarazi nahi ditu.

Liburua eta katalogoaren mamia osatzen duten landareen zerrenda osatzeko denbora luzea behar izan da. Landareak zaintzeko agindua Europar Batasunetik etorri zaio Eusko Jaurlaritzari. EBk landareak eta abereak zaintzeko agindua eman zien bere baitan dauden estatuei eta Estatu espainiarrak autonomia erkidegoei helarazi. Agindu horretatik sortu ziren EAEn Natura Zaintzeko Legea eta Naturzaintza, aditu eta teknikoek osatutako lan taldea.

Legea eta azpiegitura sortu zenetik landareen alde zerbait egitea iritsi zen arte hainbat pauso eta zenbait urte igaro dira:

- Adituek babesa behar zuten 200 landareren zerrenda bat proposatu zuten.
- Naturzaintzak zerrenda hori dextente laburtu zuen, 137 utziz.
- Arriskuan dauden landareak markatuta, horiek babesteko

PLATER MIMATUAK...

EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!

Jatetxea - Taberna

“EL CLARETÉ”

Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefonoa: 945 26 38 74

Garagardotegia

Asteartetik
Igandera
IREKITA

La Blanca

* Oilasko erreak
* Kazolatxoak

Tfnoa. 945 27 90 46
Herrandarren kalea, 82
Gasteiz

neurriak hartzen hasi ziren. Gehienak Ahaldun nagusien esku, arlo horretako eskuduntzak eurei baitagozkie.

Zerrendatik at geratu diren 63 horiengatik goibel agertu da Pedro Uribe Etxebarria botanikoa. "Erabat babesik gabe geratu direla esan behar da; ez da atal batean sartu beharrean beste batean egin dutela, baizik ez direla kontuan hartuko", azpimarratu du. Zergatik geratu diren kalean galdetzean hasperen luzea egin du: "Zaintzeko oso zaila den leku batean daudelako, adibidez hondartza batean, edo inguruko landen titulartasuna argi ez dagoelako,...". Hots, Pedrok horren garbi esan ez duen arren, zailtasun administratiboengatik.

Liburua argitaratzeko data zehatzik ez dute oraindik egileek. Landareen zerrendak osatzeko orduan bezala administrazio arazoak sortu dira tartean: "Liburua Jaurilaritzako Nekazaritza Sailak eskatu zigun, baina egun arlo hori Ingurugiro Sailari dagokio, eta azken horiek ez omen dute besteek a d i n a k o interesik".

Nola edo hala, liburuaren egitura zehaztuta dago eta argitaratua izateko prest. **Landare** bakoitzari bi orri dagokio, batean Iñaki Zorrakinek egindako marrazki ederra egongo da, kolorez; bigarreanean,



Pedro Uribe Etxebarriaren azalpenak: izena, kokapena, bizirauteko dituen zailtasunak, ezaugarriak,...

Zerrenda ofiziala (137 landare)

Desagertzeko arriskuan dauden landareak lau taldetan banatzen ditu Naturzaintzak onartutako zerrenda ofizialak.

- Arrisku larrian daudenak. Neurriak hartzen ez bada desagertzeko arrisku larrian dauden landareak 8 dira zerrenda ofizialaren arabera.

- Zaurgarriak. Egoera txarrerako urrats txikiena eman ez gero, arrisku larrian egotera pasako lirateke. 24 dira.

- Bitxiak. Talde horretan arrazoi desberdinengatik - hemen baino ez direlako bizi, horien populazioak bertan delako muga,...- bitxiak diren 81 landare sartzen dira. - Bereziki interesgarriak direnak. Era berezian zaindu behar diren 24 landare daude talde honetan.

Gizartearen erabileraeratik edo arrazoi desberdinak direla bide erasotuak izan daitezkeelako kontuan hartu behar dira, baina gurean ez dira urriak.

Dena dela, 137 landare horie-tako guztiak ez daude literalki desagertzeko arriskuan.

Armeria euscadiensis
Mehatxuen maila: Bakana



Narcissus pseudonarcissus
Mehatxuen maila: Interes berezikoa

Are gehiago, dio Pedro Uribe Etxebarriak, "batzuk inolako arazorik gabe ikus ditzakegu gure mendietan, baina ugaritasuna baino gauza gehiago kontuan izan behar dira: non dagoen -Euskal Herrian bakarrik edo leku gehiagotan-, zein erabilera ematen diogun,...".

NONBAIT

Kamisetak: Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...

Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak

Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7

Tel./faxa: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

GASTEIZ

ZURE EUSKAL DENDAK

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA



HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ

XABIER MIZPEOLEA



HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



*gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak*

Zure denda erotikoa

SEX

PITILIN GORRI

Sexua
euskaraz
bizi



GASTEIZ

Tren geltokiaren ondoan

Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA

OIARTZUN



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

ARABAKO EUSKARA ELKARTEAK

Euskara Araban gora doan seinale euskara elkarteak dira. Gure asmoa da Arabako euskara elkarten mapa osatu bat egitea, zuei guztioi euren jardueraren berri emateko asmoaz. Momentuz honako elkarte hauen informazioa lortu dugu, baina ziur gaude ez direla guztiak. Horrexegatik, zuetako norbaitek beste euskara elkarte baten, gehiagoren, berri balu HELARAZTEA eskertuko genizueke, informazio hori argitara dezagun. Eskerrik asko.

Hona hemen, ba, han eta hemen topatutakoa:

Leire Lpz. de Aberasturi

LEGUTIO:

GURIE Elkarte

1

- ✓ Sortu: 1999an - Antolaketa: Bazkideak.
 - ✓ Non jardun: Legutio eta udalerrri osoan.
 - ✓ Helburua: TREBIÑON EUSKARA KALERATZEA.
 - ✓ Ekintzak: Berripapera argitaratzen dute eta aurten arrakasta handiegirik izan ez duten mendi irteerak eta bestelako ekitaldiak egin dituzte.
- Etorkizuna: Egindako ekintzek izan duten erantzunetik ikasi dute eta aurrerantzean eskaintza erakargarriagoa osatu nahian Legutio barrura begiratu dute; bertako euskaldunak protagonista bihurtu nahi dituzte hitzaldiak antolatzeko (mikologia, mendia, landareak,...).
- ✓ Kontaktua: Marisa 945 45 54 00

LAUDIO:

BAZALARRINA Elkarte

2

- ✓ Sortu: Elkarte duela 4-5 urte jaio zen. Orain topagunerako lokala egiten ari dira, aurten zabaltzeko asmoarekin gainera.
- ✓ Antolaketa: Bi mota ezberdinetako 150 bazkide inguru ditu; batetik, norbanako bazkideak daude eta, bestetik, kolektiboak (ikastolak, guraso elkarteak,...).
- ✓ Non jardun: Printzipioz Laudion aritzen dira, baina Aiara osoan lan egiteko asmoa dute.
- ✓ Ekintzak: Kultur ekitaldi puntualak egin izan dituzte, baina orain ahalegin eta lan guztiak topagunerako lokala apaintzeko behar dituzte. Lokala erabat bukatuta ez eduki arren, Gabonetan zenbait ekitaldi egin nahi ditu Bazalarrinak, eta gutxienez, Olentzerori egoitza berrian ongi etorria egingo diotela agindu dute.
- ✓ Etorkizuna: Etorkizunerako asmoetan oso originalak ez direla diote laudiarrek; izan ere, beren helburu bakarra euskararen erabilera jorratzea eta areagotzea dela diote. "Ez dakienak jakingo du ikasi behar duen ala ez, baina dakienak erabil dezala", dio arduradun batek. Lokal berrian erabiltzeko aukera egongo da!
- ✓ Kontaktua: bazalarrina.net

AÑANA:

EUSKARA AÑANAN MINGAINEAN

3

- ✓ Sortu: 1996an
 - ✓ Antolaketa: Bazkideak.
 - ✓ Non jardun: Añanaldeko 10 udalerrietan: Erribera Goitia eta Erribera Beitia, Lantarón, Gaubea, Kuartango, Beranturi, Aramiñon, Oka-Iruña, Gesaltza eta Zanbrana. Bitxikeria bezala esan daiteke Mirandako jendeak ere parte hartu izan duela elkarteak antolatutako ekitaldietan.
 - ✓ Ekintzak: Urtean zehar egiten duten ekintzarik nagusia Euskara Añanan Mingainean eguna da, baina horretaz gain zonaldean euskararen erabilera bultzatzeko hainbat ekimen egiten dira: euskaltegiei lagundu, Olentzero bezalako ekitaldi puntualak,...
- Etorkizuna: Kezkaz ikusten du elkarteak etorkizuna, duela 7-8 urtetik hona aurrerapauso handirik ez dutelako somatu euskararen egoeran Arabako eskualde horretan.
- ✓ Kontaktua: Posta bidezko harremana: Euskara Añanan Mingainean, Langraizeko Gizarte Etxean

ERRIOXA:

TTIKI TTAKA Elkarte

4

- ✓ Sortu: 1992an
- ✓ Antolaketa: 60 bazkide inguru dira. Hilabetean behin bildu egiten dira urteko plangintza osatu eta unean uneko ekitaldiak prestatzeko.
- ✓ Non jardun: Arabar Errioxa osoan.
- ✓ Ekintzak: Jarduera kultural ugari egiten ditu elkarteak: euskara eguna, txirringa martxa, gazteentzako txalaparta eta pandero ikastaroak, begirale ikastaroa, antzerki emanaldiak,...
- ✓ Etorkizuna: Etorkizunerako erronka eskualderako normalizaziorako plan estrategikoa osatzea da helburua, baina hori baino lehenago sentsibilizazio kanpaina bat egingo dute Ttiki Ttakakoek, plangintza osatzen denean azpiegitura egokia egon dadin.
- ✓ Kontaktua: Labarkako Assa Ikastola (945 60 71 99) eta Oiongo IKAKo euskaltegia (945 60 10 87)

URKABUSTAIZ: LAN ETA JOLAS Elkarteak

9

- ✓ Sortu: 1980
- ✓ Antolaketa: 70 bat bazkide ditu.
- ✓ Non jardun: Urkabustaizen, batez ere Izarran.
- ✓ Ekintzak: Urtean zehar ekintza egitarau zabala dauka Lan eta Jolas elkarteak: Urkabustaiz eguna; haurrentzako tailerrak eta jolasak udaberri eta neguko larunbatetan; "Berbita" aldizkariaren argitalpena (elebiduna); eta AEKrekin elkarlana burutzea.
- ✓ Etorkizuna: Orain arteko ekintza guztiekin jarraitzeaz gain, Zigor Enbeitaren laguntzarekin Bertso Eskola antolatu nahi dute Gorbealdean. Era berean, euskara kalera ateratzeko ahaleginetan jarraituko dute, euskara egun bat antolatuz, besteak beste.
- ✓ Kontaktua: 945 43 70 83 (Urtaran Okindegia), Mila Urtaran

BARANBIO: BELAIKI Elkarteak

10

- ✓ Antolaketa: Bazkideak.
- ✓ Non jardun: Baranbion.
- ✓ Ekintzak: Ekintza puntual ugari egiten ditu urtean barrena Belaiki izenez sortu zen bazkide gazte taldeak: Olentzero, mendirako martxak, Agate Deuna, Euskal Jaia,...
- ✓ Etorkizuna: Ekitaldiak Baranbiotik Amurrion zabaltzeko asmoa du Belaiki, daukaten aurrekontuarekin zail xamar ikusten duten arren. Arduradun batek esan duenez, "gauzak antolatzeke prest gaude beti, eta jendearengana iristeko ekitaldi potenteak egin nahiko genituzke". Hori lortzeko lanean dago Baranbioko talde gaztea.
- ✓ Kontaktua: Amurrioko Udala

ARAMAIO: TXIRRITOLA Elkarteak

8

- ✓ Sortu: 1999
- ✓ Antolaketa: Kuota sinbolikoa ordaintzen duten 80 bat bazkide.
- ✓ Non jardun: Txirritolak Aramaion egiten du lan, baina Goienako 9 herriek (Deba Garaiko udalerrriak eta Aramaio) euskara kontuetan elkarlana burutzen dute eta, besteak beste, Goiena telebista lokala eta "Goienkaria" herri-aldizkaria aipatu behar dira.
- ✓ Ekintzak: Hilean ekitaldi bat gutxienez. Aramaioko elkarteak 4.800 euro baino apurtxo bat gehiagoko aurrekontua dauka, "eta ez dakit nola amaituko dugun urtea", esan du arduradun batek. Hori bai, horrek ez du esan nahi ekitaldiak egiteari utziko diotela, bitartekoak bilatzen dituztela baizik.
- ✓ Etorkizuna: Aramaio herri euskalduna izanik, Txirritolaren erronka euskara kalean egotea da.
- ✓ Kontaktua: Mikel Aranzabal, 945 44 52 66

ZIGOITIA

7

- ✓ Oraindik elkarte moduan antolatu ez den talde bat ari da lanean Zigoitin duela 13 urte baino gehiago. Elkarteak antolatzeke asmoa ez dute baztertu eta agian urtea amaitu baino lehen burutuko dute aldaketa ofiziala.
- ✓ Ekintzak: Urtean zehar egiten duten ekintzarik nabarmenena Zigoitia Euskaraz jaia da. Baina hori urtean zehar egiten duten lanaren erakusgarri baino ez da, euskara bultzatzeko taldeak beste hainbat gauza egiten dituelako: bertso saioak, antzerkia, kantaldiak,...

AGURAIN: BAIETZ! Euskara elkarteak

6

- ✓ Sortu: 1997
- ✓ Antolaketa: Bazkideak ditu, baina kuotarik ez dute ordaintzen.
- ✓ Non jardun: Agurain. Ekitaldi batzuk, Olentzero adibidez, inguruko herri txikiak zabaltzen dira.
- ✓ Ekintzak: Elkarteak ez dauka urte urte errepikatzen duen egitarau zehatzik, baina hainbat ekintza kultural egiten ditu: bertso saioak, ikastaroak, erakusketak,...
- ✓ Etorkizuna: Erabilera bultzatzeko asmoz sortu zen elkarte lokal bat eskuratzeko ahaleginetan dago, Agurainen euskalgune bat sortzeko asmoz.
- ✓ Kontaktua: Tfnoa: 945 30 04 08. E-mail: baietz@kaixo.com

TREBIÑO: GUTXISOLO euskara elkarteak

5

- ✓ Aurtengo ekainean sortua!
- ✓ Ekintzak: euskara klaseekin hasi, euskal jaiekin jarraitu, azkenik euskara elkarteak sortzeko beharra ikusi, eta berau sortu. **Zorionak!**
- ✓ Helburua: TREBIÑON EUSKARA KALERATZEA.
- ✓ Derrigorrezko zita, beraz: IV. TREBIÑOKO EUSKAL JAIA VILLANUEVA DE OCAñ, maiatzaren 25ean
- ELKARTE HONEN INGURUKO INFORMAZIO GEHIAGO DATORREN ALEAN IZANGO DUZUE!!!



GASTEIZ:**BAGARE EUSKAL TOKIA**

- ✓ 1988 urtean jaio zen
- ✓ Egun 160 bazkide ditu. 54 euroko kuota ordaintzen dute (27 euro langabetu zein ikasleentzat).
- ✓ Asmoa: euskaldun guztiontzat bilgunea izatea eta euskarazko ekintzak antolatzea. Euskalgintzaren koordinaziorako bideak irekitzea.
- ✓ Egungo proiektu nagusiak, kultur ekimenak: mendia eta abentura hilabetea, ipuin hilabetea, zinema euskaraz jardunaldiak, haurrentzako ipuin txapelketa, bertso sariketa, euskaldunentzako ateraldiak, ikastaroak, ikastolen jaietara autobusak, txosna Gasteizko jaietan.
- ✓ Helbidea: Aitzogile 62 beh. (provisionalki Aitzogile 72 beh.)-01001-Gasteiz. 945261956 (Txus) / e-maila: bagare@hotmail.com
- ✓ Erronkak:
 - Lokalaren birmoldaketa egin eta berriz ireki.
 - Euskalgintza indartu eta euskara zabaltu.
- ✓ Bagarek Euskal Herri mailako hainbat ekimenetan hartu/hartzen du parte:
 - Euskaldunon Egunkariaren sorrera eta handitzea.
 - Garai batean EKBn eta gaur egun Kontseiluan.
 - Euskal Kantuzaleen elkarteak.
 - Arabako Euskaltzaleon Elkargunea...

GASTEIZ:**EUSKAL HERRIAN EUSKARAZek**

- ✓ ere jarduten du Gasteizen nazio mailako plangintza jorratuz.
- ✓ Informazio gehiago: 945261956

GASTEIZ:**EUSKALTZALEON ELKARGUNEA**

- ✓ Euskaltzaleon Elkargunea ez da euskara talde arrunta, elkartearen elkarte bat baizik, eta Gasteizko euskaltzaleen interesen alde aritzen da lanean euskara elkarte eta euskaltegien elkarlana bultzatuz eta koordinatuz. Horrez gain, erakundearen aurrean oso egokia den ordezkaritza bateratua da.
- ✓ Kontaktua: 945 26 19 56

GASTEIZ:**EUSKARAZ BIZI ELKARTEA**

- ✓ Sortu: 1995
- ✓ Non: Gasteiz. Arabako hiriburuan aritzen dira gehienbat, baina beren jarduerari mugarik ez diote jartzen.
- ✓ Ekintzak: Hasi berria den ikasturterako programazioa osatu gabe duten arren, mendi irteerak eta soinu eta pandero erakustaldiak egingo dituzte, aurreko urteetan bezala. Euskal jaietan ere parte hartzen jarraituko dute, Gasteizko gainontzeko taldeekin elkarlana bultzatuz.
- ✓ Etorkizuna: "Euskarak dituen arazoak gureak dira" uste du Gasteizko elkarteak eta erasoei aurre egiteko prest dagoela azaldu du, betiere planteamendu baikor eta dinamiko batetik.
- ✓ Kontaktua: Natxo. 945 17 02 45

GASTEIZ:**GEU ELKARTEA**

- ✓ SORRERA: Geu Elkartea 1992. urteko ekainean sortu zen; abenduan Elkartearen eskutik Geu Aldizkariaren 1. alea kaleratuko da.
- ✓ ESKAINTZA, URTEKO EKINTZAK-EKIMENAK: Besteak beste, Kultur emanaldiak (hilean behin: kanta, bertso, antzerki, irakurketa ikuskizunak); Geurekin Mendira (mendi irteerak hilero: egun erdikoa/osokoa); Mintzalaguna (lagunak eginez eta giro oneko taldean euskara garatu eta landu ahal izateko mintza-praktikarako ekimena). Aurtengo eskaintza berriak: Araba Euskaraz-ekin lanean aritu izana (txikientzako ikuskizunak urtean zehar antolatuz). Ekintza zehatz hauetaz gain, Geu elkarteak parte hartzen du Euskal Herri mailako Euskara elkartearen Topagunea-n, eta Araba mailako Euskaltzaleon Elkargunean ere.
- ✓ HELBURUA: Euskararen normalkuntzaren aldeko elkarte den heinean, Gasteizen euskara sustatzeko eta indartzeko helburuaz jarri zen abian, baita gizartearen hainbat esparrutan euskarak merezi duen tokia lortzeko ere.
- ✓ NORI ZUZENDUA, ESPARRUA: Adin guztietarako aukerak eskaintzen ditu elkarteak. Batez ere gazte eta helduentzat zuzendutako ekintzak garatu ditu orain artean, baita umeei zuzendutako ekintzetan bere lehen pausoak eman ere.
- ✓ FUNTZIONAMENDUA-KUOTA: Urtean behin 18 eta 54 euro bitarteko kuota ordaintzen da, eta honen trukean elkartearen ekintzetan parte hartzeko aukera izateaz gain, hilero Geu aldizkaria jasotzen dute bazkideek euren etxetan, baita euskarazko ekimenen informazio zehatza ere. Kuota: langabetuek eta ikasleek, 18 €; langileentzat, 36 €; bikoteentzat, 54 €; eta familia osoarentzat, 60 €.
- ✓ ZAILTASUNAK: Prestakuntzak denbora eskatzeaz gain, batzuetan arazo ekonomikoak direla medio korapilatzen dira egitasmoak.
- ✓ ETORKIZUNA: Elkarteak ekintza berriak aurrera ateratzeko lanean dihardu gogo eta ilusio handiz. Gauza ugari daude egiteko euskarak esparru handiagoa lor dezan, hortaz, ikasturte berriko beritasunen artean, honakoak:
 - *Urriaren 9an aurkeztuko den Irakurle Kluba (ikus. 8. orr.)
 - *Geu Elkarteak Gauekoak programarekin batera azaroaren 1 eta 2ko asteburuan kontzertu eta ekintza erakargarriak ideatu ditu Aldabe Gizarte-etxean.
 - *Herri aldizkariak batzen dituen hemeroteka sortzea, baita literatur tailerrak eskaintzea ere.
- ✓ Geu Elkarteak. Pedro Asua 2, 3.a-01008 Gasteiz. Telf-faxa: 945.22.21.53. E-maila: geuelkartea@grn.es
- Kontakturako pertsona: Josune.

GASTEIZ:**EUSKHARAN EUSKARA ELKARTEA**


- ✓ Sortu: 1997
- ✓ Non: Gasteizko Zaramaga, Aranbizkarra, Aranbide eta Aranzabela auzoak.
- ✓ Ekintzak: Bi arlo bereiz daitezke Euskhara elkartearen jardueran: batetik, formakuntzari dagokiona (tailerrak, informatika ikastaroak, eta abar) eta, bestetik, jaia eta euskara kalera ateratzearena: Euskara Eguna, Gabonetako eta urtarotetako jaiak,... Elkarteak ikus-entzunezko gela eta liburutegia osatu du Amaia gizarte etxean.
- ✓ Etorkizuna: Aurrerantzean eskaintza zabaltzeko ahaleginetan jarraituko du elkarteak, eta aurtengo lan horren emaitzak ikusiko dira, marrazketa, zeramika, masajea, egur-taila eta esperantoko ikastaroak emango baitituzte. Euskaraz, noski!
- ✓ Kontaktua: 945 28 86 17

Zerrenda osatzeko ahaleginetan ustekabe atseginak egon dira, esaterako Trebiñokoa, edota Baranbio bezalako herri txiki batean gazte talde animoso bat euskara kalera ateratzeko gogor ari dela jakitea, edo Gasteizko Euskhara-en esperientzia interesgarri bezain emankorra gogoratzea bezala. Baina, era berean, Araban euskaldunentzako topagunerik ez duten hainbat herri daudela jakin du GEUK; aurrean duzuen Arabako mapan agertzen diren hutsuneek herri horietako euskaldunak zirikatzeke balio badute, urtebete baino lehen beste zerrenda luzeago bat prestatu beharko dugu...

Horixe gure nahia eta guztion erronka!

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

HIRIA, GASTEIZ, AUTO ETA SEMAFOROEN OIHANA



Bizitza kalitatea ingurugiroa eta lasaitasunarekin lotu behar dela esaten dute adituek. Alde horretatik begiratuta behintzat gasteiztarrok gero eta bizitza maila baxuagoa dugu, egun ia 115.000 ibilgailu baitaude hirian: eguneko minutu guztiak (baita gaueko asko ere) kaleak kez eta zarataz betetzen dituzten kotxe, motor, furgonetak,... Urtez urte ibilgailu gehiago dago, baina batzuen ustez arazoa ez da hori, gero eta alferragoak garela baizik, etxetik ehun metrora dagoen tabernara joateko ere autoa hartzen dugula alegia.

Leire Lpz. de Aberasturi

Arg.: Edorta Sanz

azkarprint
imprenta / inprimategia

Helbide berria....

Landazuri, 7

♦ INPRIMATEGIA ♦

Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ

ARANBIZKARRA

ZURE

AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16

Tfnoa.: 945 28 28 39

01002 Gasteiz

Egun, 114.959 ibilgailu dago Gasteizen matrikulatuta, horietatik 90.215 autoak dira; horrek iaz baino 3.000 bat gehiago dagoela esan nahi du, eta kopuruak urtero egiten du gora. Kotxea gero eta gehiago erabiltzeko ohitura sozialak hiria auto eta semaforoen oihan bihurtu du eguneko 24 orduetan. Dagoeneko gazteak ez direnek garai batean lanera eta eskolara joan-etorria egiteko orduetan baino ez zirela trafiko arazoak egoten gogoratzen dute, baina orain eguneko edozein ordutan aurkitu ditzakegu auto-ilarak.

Gauzak horrela, Udalak hainbat neurri hartu behar izan ditu azken urteetan, horietatik bat, garraio kolektiboa bultzatzea. Arlo horretan hartutako neurriak ez dira hala ere nahikotzat hartzen bizimodu lasai eta osasuntsuago baten aldeko bideak zabaltzeko eskatzen dutenentzat. Horien artean hirian bizikleta erabiltzearen alde daudenak aipatu behar dira.

Bidegorri sare etena

Gasteizko Udala bidegorri sare handia izateaz harro agertu da

beti, bai oraingo alkatearen lan taldea baita aurrekoarena ere. Erabiltzaileek, aldiz, bizikletentzako lehen bide berezia zabaldu zenetik jada hamar urte baino gehiago igaro direnean, sareak etena dirauela salatzen dute. Hau da, hirian barna bidegorri kilometro ugari egon arren (ez Udalak onartutako proiektuan agertzen diren guztiak, halarik ere), txirrindulariek ezin dezakete



Zenbakiak-Kotxeak

	Autoak	Ibilgailuak
2002. urtea	90.215	114.959
2001. urtea	87.697	111.139

Aparkalekuak:

Orora 10 dira Gasteizen dauden parking-ak, 3.000 bat aparkaleku dutenak; hauen erdia, 1.500 gutxi gora-behera, errotaziokoak, hau da, orduka alokatzen direnetakoak. Zenbaki horrek ez ditu etxe partikularretakoak eta auzoetan bertako bizilagunentzat daudenak kontutan hartzen.

Europa
Arka
Francia, 4
Artium

Juan de Ayala
Alava Garajea
Deba eraikinekoa

Corte Inglés
Dendaraba
Postetxekoa

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (KORRERIA), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

JANTZI
ETA
OPARIAK

Aiztogile kalea (Kutxi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ


Confecciones
Pinedo
JANTZIAK
San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90


GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 • 01001 - GASTEIZ


IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • 945 430 073

MARRAZKIAK • KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK

zurbeltz
Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20



Gasteiz zeharkatu errepideetara atera gabe.

Bizikletaren erabileraren alde egiten dutenek ez dute garraiobide bat bezala defendatzen bakarrik, bizimodu alternatibo eta osasungarriago baten alde egiteko bide gisa baizik. Garraio kolektiboa erabiltzea ere ingurugiroa zaintzeko modua bada, eta arlo horretan semaforoak eta trafikoaren araudia bezain polemikoa den gaia sortu da Gasteizen

azken urteetan: tranbia.

Noiz eta nola egingo den guztiz zehaztu baino lehen dirutza handia jan duen proiektuak, kontrako iritzia dutenen ustez handinahi usainez sortu den proiektuak, hiriaren garraio kolektiboen antolaketa baldintzatuko du. Izan ere, TUVISAko arduradunek onartu dutenez, ez da autobus-linea berririk zabalduko tranbiaren proiektua zehaztu artean, bikoizketa arazoak ekiditeko.

Zenbakiak-Autobusak

14 autobus-linea dago Gasteizen, Gau-txoriko sei bereziak kontuan hartu gabe. Berriena Donostia-Baiona kaleetatik igarotzen dena da, Eusko Jaurlaritzaren eraikin berriaren atzetik dihoa, eta momentuz Udalak ez du bide berriak zabaltzea aurreikusten, ez gutxienez tranbiaren egitasmoa zehaztu arte.

Ibilgailu gehien behar duen autobus-linea El Pilar-Lakua da, 12 minutuero iristen baita bat geltoki bakoitzera. Gainontzekoak 15, 20 edo 30 minutuero igarotzen dira astegunetan.

Asteburuetako gauetan ibiltzen diren Gau-txoriko bereziekin batera, Jundizekoa ere ezohikoa da: bertako enpresetan lan egiten duten langileentzako zerbitzua da eta 13 joan-etorriko bidaiak egiten ditu egunero, goizean, eguerdian eta gauean.

Xabier

taberna

musika ona
eta giro ezin hobea

Aiztogile kalea (KUTXI), 23



MIKEL
DELIKA

BEIRATE ESTUDIOA

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

MERKURIO-KADMIANOAN
%0a

CEGASA PILAK
INDARTSUEENAK
ETA
EKOLOGISTENAK

CEGASA
INTERNATIONAL
ALCALINA



CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

Zer iritzi dute gasteiztarrek... autobusei buruz?

Encarna Diaz, 73 urte

“Ni alargundu eta gero hasi nintzen autobusa erabiltzen, ordu arte senarra nire txoferra ere bazen. Orain autobusa erabiltzen dut seme-alaben eta lagunaren etxeetara joateko. Erosketak egiteko, berriz, etxe inguruan geratzen naiz edo alabari laguntza eskatzen diot, nire adinean pisu handiarekin autobusean ibiltzea gehiegi delako. Nik nire etxe inguruan geltokia duten autobusak ezagutzen ditut gehienbat eta ondo funtzionatzen dutela uste dut. Gehiago eska daiteke, maiztasun handiagoa, geltoki gehiago,... hobetzea beti delako posible, baina neure behar apalenzat nahikoa dela onartu behar dut”.

Oihane Crespo, 30 urte

“Lanerako erabiltzen dut autobusa, erdialdetik Lakua, Zaramaga edo Aranbizkarrara joatea tokatzen zaidalako sarri. Ez dut gidatzen eta nork bere kotxea edukitzea erosoagoa izango dela imajinatzen dut, baina ez dut aparkatzen nerbioak hautsi behar eta merkeago ateratzen zaidala uste dut. Gertatu izan zait zain eta zain egon beharra atzerapenak direla eta, baina oro har Gasteizen autobusez mugitzea nahiko erraza dela esango nuke. Dena den, gidatzeko karneta ateratzen ari naiz”.

Pablo Vicente, 75 urte

“Erretiratu naizenetik asko erabiltzen dut autobusa, eta ez bakarrik merkeagoa delako -horregatik ere-, baita presarik gabe ibiltzea posible dudalako ere. Mendizorrotza aldera joaten naiz egunero-egunero eta hara doazen autobusak oso kontrolatuta ditut: puntualak dira”.

Marian Urrutia, 26 urte

“Nik etxetik lanerako bidea egiteko erabiltzen dut autobusa, baina neguan bakarrik, udan bizikleta erabiltzea erabaki dut-eta. Lakuako azken partean bizi naiz eta lantokia Foru kalean daukat; eguerdian joan-etorria egiteko gaizki ibiltzen naiz, denboraz larri. Autobusak oso puntualak ez diren egunetan ia ez zait etxera joatea merezi. Uste dut betiko auzoetan funtzionatzen duten autobusak hobeto daudela auzo ‘berrietakoak’ baino, eta geltoki gehiago dituztela ere iruditzen zait. Izan ere, nik neurea ez daukat etxetik oso hurbil. Edo agian, gertatzen dena da oraindik ez naizela erdialdetik horren urrun bizitzera ohitu, eta besterik ez!”



GASTEIZKO AUTOBUS-LINEAK

- Hilerrikoa
- Astegieta - Jauregilanda
- El Pilar - Lakua
- Txagorritxu
- Donostia - Baiona
- Ingurabidea-2
- Abetxuko
- Zaramaga
- Gamarra - Eskalmendi
- Sansomendi - Aranbizkarra
- Sansomendi - Arana
- Errekaleor - Armentia
- Jundiz
- Ingurabidea-1



**Hitza, bihotzaren giltza:
GORA EUSKADI
ASKATUTA!**

“Arku jaurtiketa gutxiengoan dagoen kirola izan arren, gorantz ari da”

Josune Velez de Mendizabal

Arg.: Edorta Sanz



Aisialdi atsegina lagunekin biltzeko, erlajazioa praktikatzeko, bizkarreko nahiz zerbikaletako mina baretzeko, eta nola ez, txapelketetan parte hartzeko aukera eskaintzen duen kirola da arku jaurtiketa. Gainera hau gutxi balitz, kirol honetan adin guztietako lagunek dute kabida, hala nola, zortzi urtetik hasita hirurogei pasatakoak ere aritu daitezke geziak jaurtikitzen. Honen adibide Mikel Isasi, Carlos Laguna, Genara Garcia Castro, Pedro Manuel Jurado eta Jose Ignacio Isasi ditugu, edade nahiz esperientzia ezberdinetako Gasteiz Klubeko arkulariak.

Batzuek bestek baino denbora gutxiago daramaten arren, oro har denek lortu dute euren modalitatean sariren bat edo beste; jaurtikitzaile onak eta trebeak ditugu hauetariko bakoitza, eta euren ilusioz beteriko aitorpenei esker kirol hau ezagutzen lagundu digute, benetan interesgarria eta pentsatzen duguna baina joko gehiago eman dezakeena.

• **Genara García Castro (2 urte daramatza)**

-Arabako txapelduna eta Euskadiko txapelduna Arku Klasikoan, areto nahiz baso-ibilbide modalitateetan.

• **Carlos Laguna (3. urtea)**

-Euskadiko marka puntuazioetan.

-Bere emazteak (Genara) lortu titulu berdinak izateaz gain, Espainiako Txapelketan homologatu gabeko arku instintiboan lehenengo postua lortu zuen iaz.

• **Pedro Manuel Jurado (9. urtea)**

-Pedro poleas edo arku ingelesa deiturikoarekin ibili ohi da eta besteak beste honako tituluak eskuratu ditu:
-Bost bider Euskadiko txapelduna; hamabi bider Arabako txapelduna; Espainiako lehenengo postua taldeetan 50 metroko jaurtiketetan; uztailean Amurrión lau marka hautsita, 70 metroko jaurtiketetan 120 puntu dira marka gorena eta berak 118 lortu zituen.

• **Mikel Isasi (6. urtea)**

-Egun 15 urte dituen mutiko hau 1999. urtean Sorian izandako Espainia eta Munduko txapelketetan bere mailan irabazle izan zen.

• **Jose Ignacio Isasi (9. urtea)**

-Gainontzekoen monitore eta irakasle izandakoak Euskadi eta Espainiako txapelketa guztiak eskuratu ditu.

-4. postua Espainiako ehiza-ibilbide modalitatean.

-3. postua munduko txapelketan (galeper-ehiza airean).

-2. Postua 'txapelketa iberikoa'n galeper-ehiza airean modalitatean.

Hamalau bat urte pasa dira Gasteiz Arku Jaurtiketa taldea sortu zenetik, "egungo Federazioko presidentea ipurterre bat zen eta arkua ezagutarazten hasi zenean Mercedes lantegiko lau langilek jarraitu zioten -dio Jose Ignacio Isasik- eta Mercedes Kluba dugu, hain zuzen ere, Arabako arku jaurtiketan aitzindari". Egun kirol honi dagozkion bertako taldeak Gasteizen biltzen dira nagusiki, Arabako hiriburuan lau dauden bitartean Amurrión bakar bat aurki baitezakegu. Isasiren hitzetan: "Kirolen artean arku jaurtiketa gutxiengoan dagoen arren gorakada handia izan du azkenengo urteetan"; hori dela medio Gasteiz Klubean 45 kide daude eta orora federazioak 135 lagun inguru biltzen ditu. "Urteen buruan aldaketa ugari izan dira, eta umetxoei erakusten gurasoak ere 'engantxatzea' lortu dugu, nahiz eta batez ere nesken falta somatzen dugun".

%100 kontzentrazioaren lorpena

Ikaskuntza monitore baten laguntzaz egiten da, "gogoia izanez gero erraztasun guztiak jaso ditzake interesatuak", dio Isasi esperientzia handiko irakasleak, "persona horrek arkua ikutu bezain laster badakizu zenbat denbora eramango dion ikastaroak". Ikastaroa behin bukatu dela (posible da hile batean bukatzea) hurrengo pausoa, berriz, federatzea da eta hemen-dik aurrera egoitzaren giltzak eskuragarri izango ditu hasiberriak, bertako materiala erabiltzeko aukera izanik. "Dena den, benetan gustuko duenak lehenbailehen erosten du arku propioa", azpimarratzen du klubeko partaideak. Materialaren kostua merkea ez bada ere hastapenerako kit-ak 90 euro inguru balio dezake, eta "hortik aurrera nahi beste xahutu dezakezu arku batean, hala nola, txapelketetarako arku profesionalek 1.800 euro-edo balio dezakete". Geziei dagokienez, aldiz, bi eurotara heltzen ez direnak aurki daitezke, baita 30 euro eramanez diezazuketenak ere. Baina arkuak betiko iraun badezake geziak bi urtero, asko jota, aldatu behar dira, "urtebetez edo bi urtez mantendu daitezke, baina, hala eta guztiz ere, erabilpenarekin higitzen dira eta pisua galtzen dute".

Negu garaian aretoetan eta uda partean Apaiztegi zaharreko zelaian aritzen dira arkulariak entrenatzen. Euren aurpegiak kontzentrazioa besterik ez dute isladatzen ondotik pasatzean, urrunera kolore desberdinetako dianak eta arkuan egokitutako geziak dituztela. Carlosen aburuz, "haserre egon zaitezke baina jaurtikitzera zatozenean dena ahaztu beharra daukazu,



erlajatu, eta momentu horretan oso garrantzizkoa da kirolean bakarrik kontzentratzea". Honen ildora, Pedrok gogoratzen du behin entrenatzera zihoala kotxearekin susto txiki bat izan zuela eta, ondorioz, suertatutako urduritasuna zela bide, ezin izan zuela jaurtiketarik egin". Jose Ignaciok gogoan duen esperientzia zeharo ezberdina da:



"Munduko txapelketan geundela amerikar telebistako kazetari batek geziaren ibilbidea grabatzeko asmoz sorbalda gainean zeukan kamarari zuzendutako gezia jaurtitzeko gai nintzen galdetu zidan, ea bera geldi egoteko gauza izango zen erantzun nion nik, eta azkenean egin genuen. Oso arriskutsua izan zen".

AHOLKUZ AHOLKU

- Txapelketak nahiz entrenamenduak betiere segurtasun neurri handiekin egiten dira, hala nola, ikuslegoa jaurtiketa eremutik kanpo izanik.
- Ezin daiteke arkurik erabili aurretik ikastaroa egin ez bada.
- Arkua norberaren egiturara egokitu behar da.
- Arkua lehendabizi hartu baino lehen federazioarekin harremanetan jarri.

INTERESATUTA ZAUDE? ESPERIENTZIA BERRIA FROGATU NAHI DUZU?

Federaziora deitu (945.13.37.02) edota Pedro Asua, 2 kaleko egoitzatik pasa (Apaiztegi zaharra).

BASOAN, ZELAIAN, ARETOAN

Esan bezala, arku jaurtiketak soilik diana baten erdian ematea baino interesgarri eta dibertigarriagoak diren aukera ezberdinak eskaini ditzake. Jarraian kirol honen modalitate eta eskaintzak aurkezten dizkizuegu:

• ARKU MOTAK:

Lehenik eta behin jakin behar dugu hastapeneko ikastaroa modalitate guztietarako berdina den arren, gerora arku motan espezializatzea beharrezkoa dela.

• 'Berkurbatu olinpikoa' edo 'polea-arku olinpikoa'

Arku mekanikoa da, gurpil batzuk daramatzana esfortzu gutxiagorekin geziaren abiadura azkarragoa izan dadin. Nahikoa berria da, eta aretoetan 18 metrora jaurtikitzen da berarekin; gune irekietan, berriz, 90, 70, 50 eta 30 metrora.

• 'Berkurbatu berezkoa' edo 'garbia':

Ez dauka punteria sistemarik, ezta kontrapisurik ere. Aretoetan 18 metrora jaurtikitzen da eta gune irekian 50 eta 30 metrora.

• 'Longwou' edo 'arku ingelesa':

Aretoan 18 metrora eta gune irekian 50 eta 30 metrora jaurtikitzen da.

• JAURTIKETA MOTAK (OLINPIKOAK NAHIZ EHIZAKOAK):

Jaurtiketa dianarekiko urruntasunaren arabera sailkatzen da, hortaz, jaurtiketa zenbat eta metro gehiagotara egin orduan eta handiagoa izango da dianaren erdialdea, hots, 10 puntu ematen dituen zentroa handiagoa izango da. Dianaren zentroa batzuetan 10 zentimoko txanpon baten tamainakoa izan daiteke. Beraz:

- 90 eta 70 metrora eginiko jaurtiketak 1,20x1,20 metroko diana eskatuko du. Iraupena: 4 minututan 3 gezi.
- 50 metrotik eginikoak 80x80 cm-ko dianan egiten da.

Iraupena: 2 minututan 3 gezi.

- 30 metrotik, 50x50 cm-ko diana. Iraupena: 2 minututan 3 gezi.

Puntuazioan berdinketa balego hau hausteko puntu gehiago lortuko litzuke dianaren 10aren erdian jo duena ('super 10' deritzana). Badira hainbat txapelketa non maila hain da handia, ezen 9 bat egitetik 10 bat egitera emaitza alda baitaiteke, hau da, hamarrak egin behar dituzula galdu nahi ez baduzu.

• IBILBIDE MOTAK:

BASOKO IBILBIDEAK: Txapelketa modalitate honetan basoan animaliak irudikatzen dituzten 3 dimentsiotako dianak ezkututzen dira. Entrenatzeko goma-aparreko animaliak erabili ohi dituzte.

EHIZA IBILBIDEAK: Animalia berdinak dira baina ehizaren arauak ezagutu beharra dago txapelketa mota honetan parte hartzeko, hau da, standak jartzen dituzte eta epaiak problema bat planteatzen dizu, adibidez, orein emeen kontra egin behar duzula; hortaz, jaurtiketa gune mugatu batean sartzen zara eta senezkoki, denbora ere neurtuta dagoelako, lau gezi-edo bota behar dituzu baina ezin diezaiekezu eman adarrak dituzten oreinei, arrak baitira. Beste ariketa bat honakoa litzateke: Afrikan zaude eta animaliak hil behar dituzu, dianek otso, hartz, basurde, untxi, lehoi eta krokodiloen forma hartzen dute, minutu bakar bat lau gezi botatzeko, 25, 50 metrora egon zaitezke. Denbora amaitutakoan hartza hil baduzu eta lehoia, berriz, ez penalizatua izango zara Afrikan hartzik ez baitago. Bestetik ere, animalia zuri begira badago ezin dezakezu jaurtiketarik egin, benetako egoera batean zu ikusiko zintuzke eta alde egin-luke-eta.

ZELAIKO IBILBIDEA: zelaietan 2 dimentsiotako dianak erabiltzen dira, animalia erakoak ere baina zuri-beltzean.

IRATXE GONZALEZ, ilustratzailea:

Zorteari esker hasi omen da lanean zer nahi duen eta zer ez oso ondo dakien 21 urteko marrazkigile gasteiztarra. Txikitatik marrazki akademietan ahalik eta gehien ikasi eta gero, ilustratzaile ikasketak egin zituen Iratxe Gonzalezek, horretaz bizitzeko asmoarekin baina bere burua eta bere lana edozeini saltzeko prest ez dagoela erabakita. Publizitatea ez zaio gustatzen, "hotzegia baita", eta bere klaseki-de askok proiektua egiteko agentzietara jo zuen bitartean, berak tatuaje denda baterako irudi ereduen liburua egitea erabaki zuen. Berak zortea izan dela dio, baina originaltasunak eta nortasunak ere lagunduko zioten lan mundu horretan lehen urratsak ematen.

- NOLA HASI ZARA LAN HONETAN?

Betidanik gustatu zait marraztea eta Gasteizen ilustratzaileentzat modulu bat zegoela jakin nuenean horretan sartu nintzen.


- IKASKETAK AMAITU DITUZU?

Bi urteko modulua da, eta hiru-garrenean proiektua egin behar da. Proiektua da niri falta zaidana. Ikasketak amaitu baino lehen lortu dut lehenengo

"Haur literaturaren munduan lana izatea errazagoa da"

Leire Lpz. de Aberasturi

Arg.: Edorta Sanz



lana, baina arlo horretan jendeak ez die tituluei garrantzi handiegirik ematen.

- DIRUDIENEZ, ERRAZA EGIN ZAIZU LAN MUNDU HORRETAN SARTZEA.

Bai, baina zortea izan da. Izan ere, argitaletxe bakoitzak bere ilustratzailea dauka normalean, eta egunkarietan eta aldizkarietan sartzea oso zaila da. Ni Editorial Iratxon ari naiz; nik beraiekin lan egiten dut zuzenean eta beraiek Asturiaseko banatzaile bati saltzen dizkiete ipuinak Estatu guztian saltzeko.

- ZEIN DA ZEHAZKI EGIN DUZUN LANA?

Ipuin klasikoen marrazkiak egiten ditut. Betiko ipuinen -Eduarne Zuri,

Errauskiñe,...- ilustrazioetan aldaketak egiten ditut, haurrak aspertu ez daitezen, baina ezaugarri nagusiak mantenduz.

- NOLA DEFINITUKO ZENUKE ZURE ESTILOA?

Lan honetan egiten dudana ez da nire estiloa, beraiek eskatzen didatena baizik. Niri umorezko ilustrazioak gustatzen zaizkit, Tasiorenak eta Tmeo-n agertzen diren marrazkilariak, Alvarez Rabo eta Piñata adibidez.

- ZURI GUSTATZEN ZAIZUN ESTILO HORRETAKO LANIK ARGITARATZEKO AUKERA IZAN DUZU?

Oraindik ez.

- HORRELA KOAK SORTZEAN, TESTUA ERE

EGITERA AUSARTZEN ZARA?

Bai, baina lotsa ematen dit erakusteak, zuretzat komikoa dena beste batentzat barregarria ez izatea gerta daitekeelako. Nik lagunei eta gurasoei erakusten diet zer iruditzen zaien jakiteko, nahiz eta gero nik nahi dudana egin.

- HAUR LITERATURAN AGERTZEN DIRA GEHIENBAT ILUSTRAZIOAK. ZER DERITZOKU HORRI?

Gero eta gehiago sartzen ari dira helduen liburuetan ere. Lanari dagokionez, haur literaturan sartzea lortzen baduzu lana izango duzu beti, ez direlako bakarrik liburuak, eskolako materiala ere kontuan hartu behar da. Egunkari eta aldizkarietan ere gero eta marrazki gehiago sartzeko joera dago.

- LAN BAT EMATEKO ORDUAN IKASKETAK EZ DITUZTELA ESKATZEN

ESAN DUZU, BAINA BALIO AL DUTE?

Bai, batez ere teknika berriak ikasteko. Errotuladoreak, akuarelak, eta abar erabiltzen ikasi dut ilustratzaileentzako modulan; oso irakasle ona izan genuen gainera.

- GAIAZ ALDATUTA, EUSKALDUN BERRIA ZARELA AIPATU BEHAR DA. Bai, duela bost-sei urte hasi nintzen euskara ikasten.

- MARRAZKIEZ GAIN TESTUAK ERE EGITEN DITUZUNEAN, EUSKARA ERABILTZEN AL DUZU LANERAKO?

Bai, gehienak gazteleraz badira ere pixkanaka hizkuntza zabaldu behar dugula iruditzen zaidalako.

- ITXURAZ, EUSKARA IKASTEA EZ ZAIZU GEHIEGI KOSTATU

Nik nahi nuelako ikasi dut, agian horregatik. Txikitatik euskaraz ikasi nahi nuen, baina gurasoek gaztelerazko eskola batean sartu ninduten eta euskaltegietan ikasi behar izan dut heldu egitean.

- Gasteizek duen gauzarik onena?

Taberna asko dituela.

- Eta txarrena?

Alkatea.

- Nora joango zara oporretan?

Lekeitiora uste dut.

- Kolore bat

Guztiak.

- Liburu bat

Komikiren bat, liburuak baino gehiago gustatzen zaizkit eta.

- Disko bat

Koma-ren lehenengoa.

- Momentuko kezkarik handiena?

Liburuak garaiz entregatzea da orain arteko kezka, baina eman eta gero lasai-lasai nago.

- Zure biziorik handiena?

Tabakoa.

- Eta bertutea?

Lasai naizela.



ENKARGUZ EGINDAKO MARRAZKIEK EZ DUTE IRATXE GONZALEZ-EN ESTILOA ERAKUSTEN,

GASTEIZTAR MARRAZKIGILE GAZTEAK AITORTU DUENEZ. BERAK EMANDAKO HORI "EL LIBRO DE LA SELVA" IPUIN EZAGUNAREN IRUDI BAT DA: ERROTULADOREZ MARRAZTU ETA ORDENAGAILUZ KOLOREZTATU EGIN DU IRATXEK, ARGIALETXEAK HORRELA ESKATU DIOLAKO, "BAINA EZ DA NIK GEHIEN MAITE DUDAN MARRAZTEKO MODUA". HAURRENTZAT LAN EGITEAN KOLOREAK ASKO ZAINDU BEHAR DIRELA AITORTU DU MARRAZKIGILEAK: "NORENTZAT ARI ZAREN JAKITEA GARRANTZITSUA DA, UMEK GORRIA IKUSTEN DUTE GEHIENBAT, HORIXE DA GEHIEN ERAKARTZEN DITUEN KOLOREA; GIZONEK, BERRIZ, BELTZA IKUSTEN DUTE BESTE GUZTIAK BAINO LEHEN".

JOSETXO taberna



"ez dago
pintxorik"

Elizalde, z/g
Tfnoa: 945 31 45 74
ARAIÁ (Araba)



Hegoamerikako
jantzirik ederrenak

Pintore kalea. (S. Frantzisko kontoiko artzean)
Tfnoa: 945 25 03 52

Argazki - Estudioa

Erramun

Heraclio Fournier, 23
Tnoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tnoa: 26 19 91
01004

MIKEL TELLERIA, disko berriaz mintzo:

ZALDIAK HARTUTA

“Askotan neure burua orekaria bainintzan dakusat, burdin haritik jausteko zorian”


Josune Velez de Mendizabal
Arg.: Joseba Olalde

-1999. URTEAN KALERATZEN DUZU ZURE LEHEN DISKOA “DEKLARAZIOA” IZENPEAN, BERTAN VAN MORRISON, NEIL YOUNGEN ETA DYLAN-EN DOINUAK ANTZEMAN DAITEZKEELA....

Kritikoek aipatutako iritziak izan dira, baina... bai, bada oinarrian horien islada....; agian ez zait niri egokitzen hori esatea...., hala eta guztiz ere, onartzen dut horien isla antzeman daitekeela nire lehenengo lanean.

-BI URTE ETA ERDI PASA DIRA ETA JADA BIGARREN LANA ERE KALEAN DU MIKEL TELLERIAK. ZER ERAKUSTEN DIGU AZKEN DISKO HONEK?

Aurrekoarekin konparatuz gero estilo aldetik desberdin xamarrek direla ikusiko dugu. Azkenengo hau rock estiloaren baitan koka dezakegu eta aurrekoa, berriz, lasaiagoa zen, nahiz eta bigarren honetan baladaren bat agertzen den... Bien arteko zerbait lortu dugu, hau da, kanta rockeroak, baita lasaiak ere.



musikari moduan ere aberastu egin gaitu, zalantzarik gabe.
-DENBORA TARTE HONETAN ZER ERAKUTSI DIZU MUSIKA MERKATUAK?

Kantautore hitzak askorentzat bere definizioaren baitan erromantizismo kutsua har dezakeen arren, ez da Mikel Telleriaren kasua, berak sinpleago ikusten baitu: “bere kanta abesten dituen kantaria da”. Eta hori dugu hain zuzen ere bere bigarren lana kaleratu berri duen abeslariaren esanahia, betiere ñabardura txiki bat daramala abizenatzat, Idiazabalgoa rock-kantautore baitugu. Orain dela bost urte antzoki eta tabernetan entzun genezakeen Telleria. Egun, bere lehen diskoarekin berrogei bat kontzertu eskaini ondoren, bere burua ezagutzera eman du eta dagoeneko “Zaldia hartuta” izeneko bigarren lana kaleratu berri du Kuma Disketxearen zigilupean (eurek sorturiko diskografika; hau dugu lehen lana eta proiektu gehiago dituzte aurrerago jorratzeko).

-ZER-NOLAKO ERANTZUNA JASO ZUEN “DEKLARAZIOAK”?

Nahiko polita. Jende batengana heldu naiz eta nire musika ezagutaraztea lortu dut, eta horrekin pozik gaude. Dena den, positiboena zera da: Jende batek bigarren diskaz galdetzen digula, noiz aterako zain dagoela. Bada zerbait.

-BIGARREN DISKO HONEKIN HELDUTASUNA LORTU AL DU MIKEL TELLERIAK?

Lehenengo diskoan ez zen rocka egin, eta bigarren honetan estilo hau garatzen dugun heinean eboluzioaz -bai nire mailan bai talde mailan- hitz egin daiteke. Eboluzio horrek, garapen horrek aberastasuna eman dio gure kantagintzari eta



eusko
alkartasuna
www.ea-euskadi.com

arabarrok euskarari BAI

www.euskoalkartasuna.org



www.gazteabertzaleak.com

Ez dakit, disketxeen iritziz krisi nahikoa omen dago kantagintzan, horra hor Operación Triunfo delakoa... Nik nire lehen diskoarekin ez nuen helburu handirik, baizik eta martxan jarri eta apurka-apurka ezagutzero ematea. Orain orduan egindako lanari beste segida eman diogu eta beste helbide bat jarraituz beste kanta batzuk daude, beste letra batzuk... ideia gehiago ditugu, baita disko gehiago egiteko susmoa ere... hau luzerako egiten dugun apustua da.

- UDAKO KONTUEI HELDUZ, AURTENGO JALETAKO UDALA/SU TA GAR/CHENOA [LOS SECRETOS TALDEA GERO] POLEMIKARI ZER IRITZI DIOZU?

...beno nire iritziz azken bolada honetan bizi dugun egoeraren beste islada bat da, oso gauza gogorra da, oso-oso 'fuerte' iruditzen zaidana, eta gainera lotsa gabe egindakoa...; bat-batean horrelako aldaketa egitea bizi dugun momentuko islada da...

-HORRELAKORIK GERTATU ZAIZU INOIZ?

Ez, ...ez gu momentuz ez gaude Su ta Gar-en mailan, ...horrelakorik ez zaigu gertatu, horretarako ez dugu aukerarik izan...

-JUAN PARDO, CHENOA [LOS SECRETOS GERO], ALASKA, LOS CAÑOS...

KONTZERTUEN EGITARAUARI BEGIRATU BAT EMANEZ GERO, ZUK PROGRAMA OSATZEKO AUKERA IZANGO BAZENU ZEINTZUK JARRIKO ZENITUZKE?

Talde euskaldunak zalantzarik gabe, azken finean gizarte honetan euskal taldeen musikaren eskaria badago, eskari hori ukatzea ere..., eta gainera hain modu lotsagabea, niretzat izugarria da...

Honako hitzok osatzen dute "Zaldiak hartuta" diskoari izena ematen dion kanta. Beren esanahia jakin nahian Mikeli galdetu diogu:

-Irabazi?

-Gauzak ondo egitea, maila batetik bestera igotzeko, batetik bestera hobetzen zoaz.

-Galtzea?

-Daukagun apurra galtzea, garen apurra galtzea.

-Etsi?

-Askotan burura etortzen zaidan gauza da.

-Sekretua?

-Gure izanaren benetako motore.

-Zalduna?

-Antzinako hitz bat.

-Noblezia?

-Jokamolde jator bat.

-Zerua?

-Irabazi beharrekoa.



ZALDIAREN MITOA

AGUS MADINABEITIAK EGINIKO CDAREN AZALAREN BARRUAN "ZALDI AK HARTUTA" DISKOA OSATZEN DUTEN BEDERATZI KANTA DIRA. BERTAN GAI EZBERDINAK IKUTZEN DIRA. BESTEAK BESTE: 'GERO' IZENEKOA, AXULAR IDAZLEAREN OMENEZ; 'KARIBERA GOAZELARIK' ARGÍ GABEZIAZ, IKUSI ETA ITSU BILAKATZEAREN ARTEKO ROCK METAFORA; 'EKILIBRISTA GISA' IZENEKOA ERE BADA, "OREKARI MODUAN IKUSTEN DUT NIK ASKOTAN NEURE BURUA, BURDIN HARI BATEN GAI NEAN JAUSTEKO ZORIAN EGONGO BAININTZAN"; 'ZURE JOAITIAN' AGUR BATEN ISTORIA; ETA DISKOA AMAITZEKO, 'ARROKETAN' IZENEKO KANTU ZELTIKO LASAIA, "BAGARA HEMEN BATZUETAN IRLANDA ALDERA BEGIRATZEN DUGUNOK, HORREN INGURUAN EGINDAKO KANTUA".

"EZ DUGU ZALDIRIK EZ GARA ZALDUNAK" DISKOA MARTXAN JARTZEN DUEN LEHEN ESALDIA DUGU HAU, GABRIEL ARESTIREN POEMA BATETIK ATERATAKO ESALDIA HAIN ZUZEN. "KANTA HONEK ALDARRIKAPEN BAT NAHI DU IZAN, ZALDIAREN MITOARENA ALEGIA: ZALDIA LIBERTATE, NOBLEZIA ETA EDERTASUNAREN SINBOLOA IZAN DA ANTZINAKO MUNDUAN, MUNDO PAGANOAN, ZELTA ETA EUSKAL MITOLOGIAN; IRAKURKETA HAU EGINDA ETA HARIARI HELDUTA GURE HERRI HONETARAKO BALIO HORIEN ERREIBINDIKATZEA DAGO KANTA HORRETAN ETA DISKO OSOAN, ORO HAR".

bar · restaurante
albéniz

Errege atea, 9 · GASTEIZ
Tfnok: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

la riojana
jatetxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazulatxoak

Aiztogile kalea (Kurxa), 33 tfnoa. 945 25 02 39

EL

BAR

Kutxi

egm
unu
eka
o

GASTEIZKO IRAKURLE KLUBAREN AURKEZPENA
(IKUS. 8. ORR)

GEU ELKARTEAREN EKIMENEZ ETA, INFORMAZIOA EMANEZ, GEU ALDIZKARIAREN LAGUNTZAZ

URRIAK 9, HIKATENEOAN (PINTORE KALEA, 1), 20.00ETAN:
-HASIER ETXEBERRIA IDAZLEAK "IDAZLEA KAZETARI BIHURTZEN DENEAN (IDAZLEA KAZETARI LARRUZ)" HITZALDIA ESKAINIKO DIGU ('BOST IDAZLE HASIER ETXEBERRIAREKIN HIZKETAN' BERE AZKEN LIBURUAREN KARIETARAT)

-PROIEKTUAREN AURKEZPEN-BILERA, 21.00AK ALDERA

*URRIAN IRAKURTZEKO HAUTATU LIBURUA: "HIRIRA DOAN BIDEA"

EGILEA: NATALIA GINZBURG / ITZULTZAILEA: PELLO LIZARRALDE

(IGELA ARGITALETXEA)

ETA LIBURU HONETAZ HITZ EGITEKO:

URRIAREN 30EAN, 20.00ETAN, HIKATENEON

OROZKO HARANA XIV. IRAUPEN MENDIKO IBILALDIA

URRIAK 6, IGANDEA, GOIZEKO 7.30ETAN

GORBEIA PARKE NATURALA

INFORMAZIOA: WWW. OROZKO.ORG

ANTOLATZAILEA: ITXINAPE MENDIKO TALDEA (OROZKO)

ZAPATENEO KULTUR ELKARTEAREN AURKEZPEN EKITALDIAK:
IRAILAREN 28TIK URRIAREN 5ERA

AURKEZPEN JAITIK HASITA, ONDOREN:

URRIAREN 3AN POESIA EMANALDIA, GAZTETXEAN, 22.00ETAN, DOHAINIK: MAIXA LIZARRIBAR, RIKARDO ARREGI, KIRMEN URIBE ETA XABI OLASO

URRIAK 5: ZAPATENEOAREN INAGURAZIOA (ZAPA, 95 / ETA KUTXIKO AZOKAN), GOIZEKO 11.30ETATIK 13.30ETARA

EGIN ZAPING BETIKOARI!!!

TLFNOA.: 945149379

ZAPATENEO@EUSKALERRIA.ORG

XXVII. NAZIOARTEKO ANTZERKI JAIALDIA

ADI EUSKARARI EMAN ZAION TARTEARI!!!

OROTARA IRAILAREN BUKAERATIK AZAROAREN ERDIALDERA 38 ANTZERKI EGUNEZ GOZATU AHAL IZANGO GARA GASTEIZTARRAK, 32 OBRA ANTZEZTUKO DIRELARIK...

ORDU ARTE, ARAZORIK EZ...

BAINA: 32 ANTZEZLAN HORIETATIK BAKARRIK 5 IZANGO DIRA EUSKARAZ!!!

ETA 5 OBRA HORIETATIK:

-BAKAR 1 HELDUEI ZUZENDUA, PRINCIPAL ANTZOKIAN (URRIAK 18, 20.30ETAN): JOHN WAYNEREN LAGUNA. ADOS TEATROA

-BESTE 1 UMEEI ZUZENDUA, IPAR-ARRIAGA ANTZOKIAN (URRIAK 19, 18.00ETAN): AHATETXO ITXUSIA. TEATRO GORAKADA

-ETA GAINONTZEKO 3RAK UMEENTZAKO OBREN INGURUAN ANTOLATU SAIO FAMILIARRAK DIRA:

-LEIRE HASIBERRIA. TEATRO PORPOL. . PRINCIPAL ANTZOKIAN (URRIAK 13, 18.00ETAN)

-TXINTXA RAPIÑA. TXAMUSKINA. PRINCIPAL ANTZOKIAN (URRIAK 20, 18.00ETAN)

-ARRATOITXO MARIPERTXENTA & KATU BOTADUNA. TEATRO KOLLINS CLOWN. PRINCIPAL ANTZOKIAN (AZAROAK 3, 18.00ETAN)

HAU AL DA HIRITAR GUZTIOI EGOKITUTAKO ANTZERKI JAIALDI BAT ANTOLATZEA?
HONI EZ AL ZAIO BAZTERKETA DEITZEN?

OHARRA: ABUZZTUA-IRAILERAKO IRAGARRI SUKALDARITZA NATURALAREN TXOKO BERRIA BERTAN BEHERA GERATU DA, EKIMENAK BERAK EZ DUELAKO JARRAITUKO.



amtsak
Kañamo Denda - Grow shop
C/ Herrera nº38 01001 Gasteiz
Tel-Fax: 945 26 46 43

IRUSTA
TABERNA
poteo eta
pintxoak
Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

GAUEKOAK. UDAZKENA

ASTE BURUKO GAUETAN AISIALDIAZ

GOZATZEA. GAUA GOZATU

URRIAREN 4TIK ABENDUAREN

21ERA, OSTIRAL ETA

LARUNBATERO GAUEAN

-URRIAK 11-12: BASKONIA 3X3

TXAPELKETA. ALDABE-N

-GEU ELKARTEAREN EKIMENEZ:

'EUSKARAZ BUSTIZ'

ASTE BURUA

ALDABE ANTZERKIA (ALDABE G.E.)

AZAROAK 1-2 (IKUS. 7. ORR.)

"EUSKARAZ BUSTIZ" ATEBURUAZ
GAIN, EUSKARAZ GOZATZEKO
GAUEKOAK-EK HONAKOA ERE
ANTOLATU DU:

ALDABE GIZARTE ETXEAN

IZENA EMATE-TAILERRAK:

- GITARRA ESPAINARRA: URRIAK 12,
19, 26 / AZAROAK 9 (LARUNBATAK).
22.00-0.00

- AEROBOXING: AZAROAK 8, 15, 22
(OSTIRALAK). 22.00-0.00

EKINTZA IREKIAK:

- SUKALDARITZA: URRIAK

12-AZAROAK 8, 30. 22.00-0.00

- LARRUGINTZA: AZAROAK 18-29 /
ABENDUAK 13. 22.00-0.00

- PERKUSIOA: URRIAK 25, 22.00-
0.00 / AZAROAK 9. 0.00-2.00

- BEIRA-ALEAK: URRIAK 26
AZAROAK 9, 16. 22.00-0.00

ETA ADI GAUEKOAK-EN GAINONTZEKO
ESKEINTZEI!

KULKI

"Herri kirolak eta herri
jolasak kultura dira"

www.kulki.org

EUSKAL LABELA LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz



XIXILU
JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

Udaberria

euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33



Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behe - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30



LIZARRALDE
SOINYA

945 226 977

TXALAPARTA, S.L. GASTEIZ

SOINU PROFESIONALA • MEGAFONIA
ESPASIO HAUNDIEN SOINUZTAPENA



BAR
KLAKÉ

KUTXA, 2
TFNO.
143883

GASTEIZ



Sartu

Zure arropa eta oinetakoa

www.sartudenda.com

Kubxillera, 27 • Gasteiz • 945 260 710



EUSKAL
TABERNA

Egunditan, astalduenetik ostialetara

JANTOKI
BEGETARIANO

SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL- 945 27 68 33



MIKO
Izozkiak



iturrieta

Sagardotegia

Arraga auzoa.

Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

OSTIRALETIK IGANDERA
IREKITA.
ASTEAN ZEHAR
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTE BURUETAN:
HAMAIKETAKOAK ETA MERIENDAK



euskal mitologia

30 PERTSONAIA


Mari, Ama Lurra, Basajauna,
Olentzero, Kixmi, Ilazki...

guztiak aurkeztuko dizkizu
EGUNKARIAk DOAN.

Egunero, asteartetik
igandera, Euskal
Mitologiako pertsonaien
irudiz eta istorioez
osatutako bilduma
eskainiko dizugu.

Urriaren 6an, igandean,
EGUNKARIArekin karpeta
eta Ama Lurraren
lamina **DOAN.**

euskal dunon
Egunkaria



KAMILTXO

BERRIRO GURE ARTEAN!

Kaixo
laguntxo!

DEITU ORAIN

 **902 45 12 12**

EGUN GUTXIREN BURUAN, ZURE ETXEAN

27 €

bidalketa gastuak:

4,25 €



TRUK

 **902 45 12 12**

IRUÑEA • EUSKAL HERRIA

KAMILTXO

lehen hartz euskalduna!